

ERANSKINA

BASQUETOUR-TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA, S.A.  
Urkixo zumarkalea, 36, 5. solairua  
48011-Bilbo

alameda urquijo, 36, 5ª planta  
(edificio plaza bizkaia)  
48011 bilbao  
tel. +34 94 607 75 98  
fax: +34 94 607 75 95  
[www.basquetour.net](http://www.basquetour.net)

Jaun-andre agurgarriak:

BASQUETOUR-TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA, SA ("**Basquetour**") enpresak sustatuta, EUSKADIN MICE PRODUKTU TURISTIKOA GARATZEKO ETA KUDEATZEKO AZTERKETA" EZARTZEKO ZERBITZUA kontratatze prozeduraren testuinguruan, eta horren inguruko Baldintza Teknikoen Pleguan aurrez ikusitakoaren arabera, honen bidez dokumentazio honen eskaera luzatzen dugu: "MICE produktu turistikoa garatzeko eta kudeatzeko azterlana" (aurrerantzean, "**Dokumentazioa**").

Aurrekoarekin lotuta, honen bidez, jarduteko gure konpromisoak jakinarazi nahi dizkizuegu:

1. Isilpeko informazioa.- Isilpeko informaziotzat hartuko da Dokumentazioan jasotako informazio guztia. Era berean, Isilpeko informaziotzat hartuko da Dokumentazio horretatik abiatuta guk egindako edonolako azterketa, bilketa, analisi, laburpen edo edozein dokumentazio.


2.- Konfidentzialtasuna eta erabilera-betebeharrak. Bai guk, bai gure administratzaile, zuzendari, exekutibo eta langileek (aurrerantzean, "**Langileak**") konpromisoa hartzen dugu Isilpeko informazioa ez erabiltzeko zuzenean prozedurarekin lotutako helburuetarako ez bada.

Era berean, guk eta gure Langileek konpromisoa hartzen dugu Isilpeko informazioa sekretupeko eta konfidentzial gisa tratatzeko eta gordetzeko; beraz, ez diegu hirugarren batzuei jakinaraziko ez zuzenean, ez zeharka, aurretik Basquetourren idatzizko onarpenik izan ezean. Hori dela eta, Isilpeko informazioaren lapurreta izateko edo galtzeko arriskua guk hartuko dugula ulertzen da; beraz, kausa horiek direla eta hirugarren batzuei Isilpeko informazioa iritsi izana guri egotz dakigukeen zabarkeriaren ondorio dela ulertuko da.

Era berean, ezinbestekoa den gutxienekora mugatuko dugu Isilpeko informaziorako sarbidea izango duten gure Langileen eta kolaboratzaileen kide kopurua, eta hemen hartutako konpromisoen baldintzak beteko direla ziurtatzeko beharrezko baliabideak jarriko ditugu. Edonola ere, edozein egoeratan, honen ondoriozko betebeharrak ez betetzearen ardura hartuko dugu, eta dagokion moduan erantzungo dugu, baita ez-betetze hori gure Langile bati edo hainbati egotz badakioke ere.

3.- Jabetza eskusiboa.- Isilpeko informazioa eskusiban Basquetourren jabetzakoa dela onartzen dugu. Dokumentazioa entregatzeak ez du jabetza intelektualeko edo beste eskubide batzuen ustiapen-lizentziarik ematen, eta ez zaituzte behartzen edozein gairen inguruko kontratua egitera. Bereziki, baina mugaketa-izaerarik gabe, ezingo dugu, inolaz ere, Isilpeko informazioa modu komertzialean ustiatu edo erabili, Prozedurarekin lotuta ez bada. Era berean, ezingo dugu jabetza intelektualeko edo industrialeko eskubiderik eskatu gure alde Isilpeko informazioari dagokionez.

4.- Iraupena.- Honen arabera, gure konpromisoak lau (4) urtetako iraupena izango du, sinaduraren datatik aurrera.



5.- Isilpeko informazioa itzultzea edo suntsitzea.- Esleipena burutzerakoan, arrazoiz ahal den bezain lasterren, eta edonola ere, amaitu denetik bost (5) lanegun pasatu baino lehenago, Dokumentazioa suntsitu beharko da.

6.- Legedi aplikagarria eta jurisdikzioa.- Hitzarmen hau Espainiako legeek arautuko dute. Alderdiek, aplikagarria den norberaren edozein eskumeni espresuki uko eginez, adostu dute hitzarmen honen interpretazio edo exekuziotik eratorritako edo harekin lotutako edozein auzi, desadostasun, galdera edo erreklamazio Bilboko epaitegi eta auzitegien jurisdikziopean egongo dela.

Dokumentazioa ondorengo helbide elektronikora bidaltzea eskatzen dizuegu:

[xxx@xxx.net](mailto:xxx@xxx.net)

[Izen soziala]

P.p.

---

D. [...]

(kargua)

